

***Emakumeen eta gizonen berdintasun  
alorreko teknikarien lan-poltsa***

***Bolsa de Trabajo de personal técnico  
en materia de igualdad de mujeres y  
hombres***

**1. ariketa, TEORIKO-PRAKTIKOA  
1<sup>er</sup> ejercicio, TEÓRICO-PRÁCTICO**

**2015/02/27 - 27/02/2015**

Te acabas de incorporar a un departamento del Gobierno Vasco para trabajar como técnica o técnico de igualdad en materia de igualdad de mujeres y hombres y como primera tarea has de preparar un guión para una presentación dirigida al personal político de ese departamento.

El objetivo es, aprovechando tu incorporación, realizar una sesión de trabajo para dar a conocer a dicho personal de forma breve, concisa y general qué son las políticas de igualdad, cuál su marco jurídico, conceptual y programático básico, cuál es el papel de la unidad administrativa de igualdad y qué se espera del personal político de cara a desarrollar tales políticas en el departamento.

La presentación debe constar de 10 diapositivas y los aspectos que debes abordar en cada una de ellas son los siguientes:

**Diapositiva 1: Contextualización de la reunión.**

Expón aquellas cuestiones que te parezcan más relevantes para contextualizar la reunión.

**Diapositiva 2: Marco legislativo básico.**

Indica las 5 normas con rango de ley, incluidos tratados internacionales, que te parezcan más importantes a nivel autonómico, estatal, europeo e internacional. Debes de señalar su denominación y año de aprobación o entrada en vigor y su ámbito (autonómico, estatal, europeo o internacional).

**Diapositiva 3: Principales desigualdades entre mujeres y hombres.**

Has de aportar 5 datos comparativos de la situación de mujeres y hombres que muestren las desigualdades que te parezcan más significativas. Por ejemplo, un dato comparativo sería la tasa de actividad de las mujeres es XX y la de los hombres XX o la tasa de actividad de las mujeres es inferior en XX a la de los hombres.

**Diapositiva 4: Principios generales de actuación de los poderes públicos vascos.**

Enumera -no hay que desarrollarlos- los principios generales en materia de igualdad de mujeres y hombres recogidos en la legislación autonómica.

**Diapositiva 5: Estrategia dual.**

Indica qué estrategias integran la denominada estrategia dual actualmente imperante para el avance de las políticas de igualdad. Define cada una de ellas.

**Diapositiva 6: VI Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE.**

Señala qué es el plan, qué año se aprobó, quién lo elabora, quién lo aprueba y a quién corresponde su ejecución.

**Diapositiva 7: Gobernanza para la igualdad.**

Enumera -no hay que desarrollarlas- las 13 medidas contempladas en el VI PIMH por lo que respecta a la mejora de la Gobernanza para la igualdad.

**Diapositiva 8: Ejes de intervención.**

Enumera -no hay que desarrollarlas- los 3 ejes de intervención contemplados en el VI PIMH y los 8 programas asociados a dichos ejes.

**Diapositiva 9: Unidad Administrativa para la Igualdad del Departamento.**

Define lo que es y las 5 funciones que consideren más importantes.

**Diapositiva 10: Fin de la sesión.**

Señala aquellos aspectos que te parezcan más relevantes para cerrar la sesión.

Emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko teknikari-lanetan hasi berria zara Eusko Jaurlaritzako sail batean, eta, lehenengo eta behin, saileko politikariei zuzendutako gidoi bat prestatu behar duzu.

Helburua da, lanean hasia zarela aprobetxatuz, lan-saio bat egitea pertsona horiei hau guztia jakinarazteko, laburki eta oro har: zer diren berdintasun-politikak, zein den haien oinarrizko esparru juridikoa, kontzeptual eta programatikoa, zein den Berdintasunerako Administrazio Unitatearen eginkizuna eta zer espero den politikariengandik horiek garatze aldera.

Aurkezpenak 10 diapositiba eduki behar ditu. Hona diapositiba bakoitzean garatu behar dituzun gaiak:

**1. diapositiba: bilera testuinguruan kokatzea.**

Azaldu bilera testuinguruan kokatzeko zure ustez dauden konturik aipagarrienak.

**2. diapositiba: oinarrizko lege-esparrua.**

Aipatu zure ustez arlo honetan garrantzitsuenak diren lege-mailako 5 arau (nazioarte-itunak barne), autonomia-, Estatu-, Europa eta nazioarteko mailan. Hau guztia azaldu behar duzu: arauen izenak, noiz onartu ziren eta noiz hasi ziren indarrean egoten, eta zer eremutakoak diren (autonomikoa, Estatukoa, Europakoa edo nazioartekoa).

**3. diapositiba: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiak.**

Emakumeen eta gizonen egoera konparatzeko 5 datu azaldu behar dituzu, zure ustez desberdintasun esanguratsuenak erakusten dituztenak. Esate baterako, hau izango litzateke datu konparatibo bat: emakumeen jarduera-tasa XXkoa izatea eta gizonena YYkoa, edo emakumeena gizonena baino xx txikiagoa izatea.

**4. diapositiba: EAeko botere publikoek jarduteko printzipio nagusiak.**

Aipatu zein diren emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz autonomia-legedian jasotako printzipio orokorrak (ez duzu gaia garatu behar).

**5. diapositiba: estrategia duala.**

Gaur egun, estrategia duala nagusi da berdintasun-politikek aurrera egin dezaten. Azaldu zer estrategiak osatzen duten estrategia hori. Definitu itzazu.

**6. diapositiba: EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana**

Azaldu zer den plana, zer urtetan onartu zen, zeinek egin zuen, zeinek onartu, eta zeini dagokion hura gauzatzea.

**7. diapositiba: berdintasunerako gobernantza.**

Aipatu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean berdintasunerako gorbenantzari dagokionez jasotako 13 neurriak (ez dituzu garatu behar).

**8. diapositiba: esku hartzeko ardatzak.**

Aipatu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean jasotako 3 ardatzak, esku hartzekoak, eta ardatz horiei lotutako 8 programak (ez dituzu garatu behar).

**9. diapositiba: Sailaren Berdintasunerako Administrazio Unitatea.**

Definitu zer den unitate hori eta aipatu zure ustez zein diren haren bost eginkizun garrantzitsuenak.

**10. diapositiba: saioaren amaiera.**

Azaldu zer kontu nabarmenduko zenukeen saioa amaitzeko.